# oinez basoa

Kaixo, lagunak!
Ni Artea naiz eta hauek Erkametz jaioberria, Ipuru eta Ezpeltxo dira.



Zuhaitz gazteak gara gu, baina gure arbasoak gizakiak baino lehenagotik egon dira lurrarekin bat eginik.
Euskara gure sustraietatik sortu zen eta gaurdaino ekarri gaituen bizigarria izan da.
Lagun nahi zaituztegu gure hizkuntza ez galtzeko.



HORIXEDISEÑO

Nafarroa Oinez bezalako ekimenek gure lurra ureztatzen dute, baina horrenbeste ibilgailuk gure ingurua kutsatzen du eta gizakioi ere kalte egiten dizue. Gu $CO_2$-a geure basoetako lurrean eta egurrean atxikitzeko gai gara baita oxigeno bihurtzeko ere, baina lagun gehiago behar ditugu bai eta zuen babesa ere.





# Babes gaitzazue!



# Oinez Basoa 2011 · Basoen Nazioarteko Urtea

Oinez Basoa ekimen berritzailea da, zuhaitzak babestuz baso bat landatzean datzana eta helburu bikoitza duena: Nafarroa Oinez jaiaren eguneko $CO_2$ isuriari aurre egiten laguntzea eta gure zonaldean euskararen irakaskuntza babestea.

2011ko Oinez edizio honetarako, Tafallako Udalaren laguntzarekin, 8,3 hektareako lur-eremu bat dagoeneko prest dago Tafallako Zelai Mendian. Baso hori errealitatea bihurtzeko zure laguntza nahi dugu; datorren neguan, guztion babesarekin, 6.700 arte eta erkametz landatuko baititugu.

Nafarroako unibertsitateekin batera (UPNA eta UNAV) eta Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroaren babesarekin (CRANA), $CO_2$-aren atxikitzea zenbatekoa den neurtzeko helburua dugu, bai jadanik kontsolidatua dagoen Arbizuko basoko lurzoruan bai Tafallan denon artean sortuko dugun basoarenean ere.

Anima zaitez Oinez Basoan parte hartzera!

Webgunera sartzera eta zure zuhaitza babestera gonbidatzen zaitugu.

Info + **www.oinezbasoa.com**-en

hamaika 11n
nafarroa oinez 2011

IKASTOLA
GARCÉS DE LOS FAYOS
TAFALLA

Ikastolen Elkartea
nafarroa

Ayuntamiento de
Tafalla
Tafallako Udala